



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko abenduaren 31

152. ZK.

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea. Akats zuzenketa (2. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, Osasun Sistema Nazionaleko Osasun Publikoko Batzordearen aktei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, COVID-19aren aurkako txertoaren hirugarren dosiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, PCR bidez konfirmatu gabeko COVIDaren balizko kutsatzearen aurrekaria duten pertsonak txertatzeko pautari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikuluko 1. eta 3. apartatuen babesean hasitako zehapen-prozedurei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, COVID-19a pasatu duten pertsonen txertoa jartzeko eguna aurreratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, onetsitako honako mozio honi buruzkoa: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako gazte elkarteen gida gaurkotu dezan, elkartegintza errazteko gakoa baita”. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Caparrosoko abeltegitzarraren eta biogas-plantaren CO2 emisioen aitortpeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Valle de Odieta SCL-k 2019an jasotako laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea.**

### **AKATS ZUZENKETA**

Zenbait akats aurkitu dira 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean, 2021eko abenduaren 29ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena. Horrenbestez, honako zuzenketa hauek egin dira:

3. orrialdean, 5.1 artikuluan, honako hau dioen tokian:

«h) Nafarroako Foru Komunitateko ikus-entzunezko edukien agregatzaile baten bideragarritasun plana».

Honako hau esan behar du:

«h) 060003-06100-2276-921500 partida, Nafarroako Foru Komunitateko ikus-entzunezko edukien agregatzaile baten bideragarritasun plana izenekoa».

5. orrialdean, 5.8 artikuluan, honako hau dioen tokian:

«c) Automobilaren sektorearentzako laguntzak.

d) Hornidura-problemek ukituriko enpresentzako laguntzak».

Honako hau esan behar du:

«c) 810007-81200-7800-422200 partida, "Automobilaren sektorearentzako laguntzak" izenekoa.

d) 810007-81200-4701-422200 partida, "Hornidura-problemek ukituriko enpresentzako laguntzak" izenekoa».

Azken xedapenetako hamaikagarren, hamabigarren, hamahirugarren eta hamalauugarren (31tik 33ra bitarteko orrialdeak) testu berria honako hau izanen da:

» **Azken xedapenetako hamaikagarrena.** Aldatzea Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea.

Bat. 4. artikuluko 4. apartatua aldatzen da, eta testua hauxe izanen da aurrerantzean:

"4. Etxebizitza-sustatzailatzat hartzen da edozein pertsona fisiko zein juridiko, publiko zein pribatu, banaka zein taldean, bere baliabideen edo besterenen bitartez, eraikuntza-obra erabaki, sustatu, programatu eta finantzatzen dituen, beretzat nahiz gero besterentzeko, edo besteri entregatu nahiz lagatzeko, edozein tituluren arabera.

Sustatzaile publikotzat hartuko dira administrazio publikoak, haien sozietate instrumentalak eta sozietate publikoak, ulertuta azken horiek direla sozietateak, non administrazio publiko baten edo haren erakunde publikoen partaidetza, zuzenekoa nahiz zeharkakoa, kapital sozialaren gehiengo osoa baita.

Sustatzailearen eginkizunak ez dira eraikitzailearenak bezalakoak, izan ere, eraikitzaileak bere gain hartzen du lan guztiak edo zati bat proiektuaren arabera burutzea, bere langile eta materialak edo besteren batenak erabiliz. Hala ere, sustatzailearen eta eraikitzailearen eginkizunak pertsona fisiko edo juridiko berak egin ditzake".

Bj. 34. artikuluan 8. idatz-zatia aldatu eta 9. idatz-zatia gehitu da, testu honekin:

"8. Nafarroako Foru Komunitatean, Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua derrigorrez osatu beharko da Eraikinen Ebaluazio Txostena izateko betebeharra duten etxebizitza-tipologia kolektiboko eraikin guztietan. Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua Nafarroako Eraikinak Ebaluatzeko Erregistro Orokorrean inskribatu beharko da. Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua zaindu, eguneratu, eskualdatu eta kontsultatzeko baldintzak Eraikinaren Liburua arautzen duen 322/2000 Foru Dekretuaren 2. eta 3. artikuluetan ezarritakoak izanen dira.

9. Edozein etxebizitzaren bizigarritasun-zedula emateko edo berritzeko, eraikinen ebaluazio-txostena eduki beharko da, gai edo gai akats arinekin emaitza duena, hura eskatzekoa denean eta eraikina familia unitate, pertsona fisiko edo juridiko bakar baten jabetzakoa denean. Era berean, bizigarritasun-zedula ez da eman edo berrituko eraikinak, titulartasuna kontuan hartu gabe, Eraikinen Ebaluazio Txostena egina badu eta haren emaitza “ez gai” edo “ez gai behin-behinekoz” denean”.

Hiru. 43. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta testua hauxe izanen da aurrerantzean:

“2. Errentamendu araubidean eraiki eta kalifikatutako babes ofizialeko etxebizitzaren araubidearen gutxieneko iraupena hamabost urtekoa izanen da, behin betiko kalifikazioaren egunetik hasita, sustatzaile publiko batek sustatu eta behin betiko kalifikazioa 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera jaso duten babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan izan ezik, horietan babes araubidearen iraupen 75 urtekoa izanen baita”.

Lau. 78. artikuluko 2. apartatuko e) letra aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“e) Etxebizitzaren eraikinak ba ote duen Lehendik dagoen Eraikinaren Libururik eta/edo eraikinen ebaluazio txostenik”.

Bost. 79. artikuluko 2. apartatuko d) letra aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“d) Etxebizitzaren eraikinak Lehendik dagoen Eraikinaren Libururik eta/edo Eraikinen Ebaluazio Txostenik ba ote duen, eta hala bada, zein den haren emaitza”.

Sei. Hamalagarren xedapen iragankorra gehituko da. Testu hau izanen du:

“Hamalagarren xedapen iragankorra. Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua.

1. Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua izatea derrigorrezkoa izanen da 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera.

2. Aurrekoa gorabehera, egun horretara arte eginiko Eraikinen Ebaluazio Txostenak baliodunak izanen dira eta haiek indarra galdu arte ez da beharrezkoa izanen Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua osatzea.

3. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, ulertuko da Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuan jasotako Eraikinen Ebaluazio Txostenari buruzko aipamenak Lehendik dagoen Eraikinaren Liburuari buruzkoak direla.

4. Lehendik dagoen Eraikinaren Liburuaren edukia erregelamendu bidez arautuko da. Erregelamendu hori onetsi bitartean, Lehendik dagoen Eraikinaren Liburuaren gutxieneko edukia izanen da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean sartutako etxebizitzaren birgaitzearen arloko laguntza-programari buruzko urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren I. eranskinean ezarritakoa, ondoko berezitasunekin:

– Eraikinen Ebaluazio Txostena arautzen duen azaroaren 12ko 108/2014 Foru Dekretuak ezarritakoari jarraikiz Nafarroako Eraikinak Ebaluatzeko Erregistro Orokorrean inskribaturiko Eraikinen Ebaluazio Txostena Lehendik dagoen Eraikinaren Liburuaren zati izanen da.

– Eraikinaren prestazioak hobetzeko aukeraren azterketan beharrezkoa izanen da eraikina digitalizatzeko eta monitorizatzeko aukerei buruzko txosten diagnostiko bat jasotzea, bai eta eraikinaren jasangarritasunari eta bizitza-zikloari buruzkoa ere.

– Eraikina zaharberritzeko jarduketa planean derrigorrez jaso beharko dira eraikinak C motako kalifikazio energetikoa lortzea ahalbidetuko duten neurriak, betiere eraikinak kalifikazio energetiko apalagoa duenean.

– Lehendik dagoen Eraikinaren Liburuan jaso beharko da jabekideen erkidegoak Eraikinaren Liburua prestatu duten teknikariarekin edo teknikariekin eginiko bileraren akta. Bilera hori Eraikinaren Liburua jaso eta hiru hilabeteko epean egin beharko da, eta bertan azalduko dira Liburuan jasotako ondorio eta proposamen nabarmenenak”.

Zazpi. Hamabosgarren xedapen iragankorra gehituko da. Testu hau izanen du:

“Hamabosgarren xedapen iragankorra. Etxebizitza eta eraikinen zaharberritzearen arloko jarduketa babesgarri buruzko neurriak.

1. Babesgarri gisa kalifikatuak izateko, Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuan jasotako etxebizitza eta eraikinen zaharberritzearen arloko jarduketak soilik egin ahal izanen dira eraiki zirenetik 20 urte baino gehiago dituzten higiezinetan, salbu etxebizitza edo eraikinen ezusteko egokitzapenak egin behar direnean etxebizitzaren erabiltzaile edo haien familia unitateko kide diren eta ezgaitasunen bat duten pertsonak erabil ahal izateko edota obrak beharrezkoak direnean instalazioak nahitaez aplikatzekoa den araudi teknikora egokitzeko. Antzinasun hori aldatu ahalko da etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuko titularraren foru aginduaren bidez.

2. Berariazko erregelamendu bat xedatzen ez den bitartean, prozedura erraztu bat ezarriko da 10.000 eurotik beherako aurrekontu babesgarria duten zaharberitze-jarduketa babesgarrientzat. Horren bidez, lanak hasi ahalko dira behin-behineko kalifikaziorako eskaera aurkeztu ondoren eta hura lortu baino lehenago. Lanak amaitzeko gehieneko epea behin-behineko kalifikaziorako eskaera aurkeztu eta 9 hilabetekoa izanen da, eta behin betiko kalifikazioa eskatzeko gehieneko epea, berriz, 12 hilabetekoa izanen da, egun berek kontatzen hasita, eta ez da luzapenik onartuko. Espedientearen behin-behineko kalifikazioa eta behin betikoa aldi berean onestea ahalbidetuko da.

3. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean sartutako etxebizitzaren birgaitzearen arloko laguntza-programari buruzko urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 15.2.b) eta 34.3.b) artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, ulertuko da zaurgarritasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonak direla babes ofizialeko etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak jasotzeko indarrean dauden baldintzak betetzen dituztenak, baldintza horiek betetzetik salbuesita etxebizitzaren edota haren zati alikuotaren titulartasunari buruzkoa, zeina soilik aplikatuko zaio zaharberitutako etxebizitzaren titulartasunari.

Pertsona horiek dirulaguntza osagarriko eskubidea izanen dute. Dirulaguntza hori banakako espedientearen gauzatuko da, honako zenbatekoekin:

– Familiaren diru-sarrera haztatuak ERREGEROSNA adierazlearen halako 0,75 baino txikiagoak: lanen kostutik etxebizitza bakoitzari egotz dakiokeen zenbatekoaren eta dirulaguntzagatik lorturiko zenbatekoaren arteko aldearen % 100, etxebizitza bakoitzeko 6.000 euro gehienez ere.

– Familiaren diru-sarrera haztatuak ERREGEROSNA adierazlearen halako 0,75 eta 1 bitarte: lanen kostutik etxebizitza bakoitzari egotz dakiokeen zenbatekoaren eta dirulaguntzagatik lorturiko zenbatekoaren arteko aldearen % 100, etxebizitza bakoitzeko 3.000 euro gehienez ere.

Etxebizitzaren arloko departamentu eskudunaren titularraren foru agindu bidez aldatu ahalko dira aipatutako gehieneko zenbatekoak eta eskatutako familiaren diru-sarrera haztatuen tartekak.

4. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean sartutako etxebizitzaren birgaitzearen arloko laguntza-programari buruzko urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan aipatzen diren Birgaitze Programatuko Etxebizitza Inguruneak soilik onetsi ahalko dira etxebizitzaren arloko departamentu eskudunaren titularrak 2018ko ekainaren 14tik aurrera emandako foru agindu bidez onetsitako esku-hartze orokorreko proiektuetan jasotako eremu edo guneeetan –osoak edo zatiak, etengabeak edo etenak–. Horretaz gain, programa-oroitidazki bat aurkeztu beharko da, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 12.2.b) artikuluko 1., 2., 3., 4. eta 5. puntuetan ezarritako baldintzekin.

5. Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 56. artikuluan aipatzen diren Esku-hartze Orokorreko Proiektuak Esku-hartze Publiko Proiektuak izanen dira hemendik aurrera”.

Zortzi. Xedapen iragankor bat, hamaseigarrena, eransten da. Hona:

“Hamaseigarren xedapen iragankorra. Etxebizitza babestuen gehieneko salmenta-prezioak 2022an.

1. Etxebizitza babestuak eta haien eranskinak 2022an saltzeko gehieneko salneurria zehazteko, ez da aplikatuko Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 10.1.a) eta 10.1.d) artikuluan xedatutakoa.

2. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2022an aplikatuko zaien modulu ponderatua 1.325,71 eurokoa izanen da metro karratu erabilgarri bakoitzeko.

3. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2022an aplikatuko zaien modulu ponderatu gabea 1.272,68 eurokoa izanen da metro karratu erabilgarri bakoitzeko”.

**Azken xedapenetako hamabigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra».

Gastuaren azalpenaren eranskina (39. orrialdea) honako hau izanen da:

## III. ERANSKINA

GASTUAREN AZALPENA	1 Langileria gastuak	2 Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	3 Finantza gastuak	4 Transferentzia arruntak	5 Kontingentzia funtza	6 inbertsio errealak	7 Kapital-transferentziak	8 Finantza-aktiboak	9 Finantza-pasiboak	GUZTIRA
P Nafarroako Parlamentua				18.165.035			863.945			19.028.980
O Lehendakaritza, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Dep.	261.886.780	21.419.383		22.280.010		11.976.537	218.010	19.809.000		337.589.720
1 Ekonomia eta Ogasun Dep.	28.022.324	21.100.274	57.060.699	589.791.421	5.429.789	7.364.775	20	15.050.010	468.343.334	1.192.162.646
2 Lurralde Kohesiorako Dep.	12.197.628	83.029.616	110	299.082.079		70.953.441	37.611.459	154.850		503.029.183
3 Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Dep.	4.852.916	2.403.886		17.440.581		3.016.680	53.699.850			81.413.913
4 Hezkuntza Dep.	503.820.796	60.847.296	10	180.982.996		31.874.498	17.606.092			795.131.688
5 Osasun Dep.	635.978.068	402.771.326	60	169.391.021		50.506.158	2.726.318		31.274	1.261.404.225
7 Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Dep.	25.857.469	20.518.241	10	50.912.738		13.416.046	33.732.437			144.436.941
8 Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Dep.	10.711.017	11.849.168		16.835.890		2.812.795	68.561.450	900.000		111.670.320
9 Eskubide Sozialerako Dep.	45.253.400	171.232.945	10	288.668.137		15.285.033	9.601.598			530.041.123
A Kultura eta Kirol Dep.	15.052.382	9.659.105		26.554.297		5.002.343	7.923.131			64.191.258
B Herritarreko Harremanetako Dep.	6.047.583	3.542.396		6.876.050		1.018.392	160.500			17.644.921
F Migrazio Politiketako eta Justiziako Dep.	28.267.348	10.186.490		2.324.543		1.414.741	15.000			42.208.122
G Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Dep.	8.188.804	31.283.712	4.416	91.550.534		8.248.581	31.640.199	1.803.919		172.720.165
C Nafarroako Kontseilua				425.382			28.000			453.382
H Jarunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa										10
<b>AURREKONTUA, GUZTIRA</b>	<b>1.586.136.515</b>	<b>849.843.838</b>	<b>57.065.315</b>	<b>1.781.280.734</b>	<b>5.429.789</b>	<b>222.890.020</b>	<b>264.388.009</b>	<b>35.913.860</b>	<b>470.178.527</b>	<b>5.273.126.597</b>

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Osasun Sistema Nazionalako Osasun Publikoko Batzordearen aktei buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Osasun Sistema Nazionalako Osasun Publikoko Batzordearen aktei buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00249), jakin nahi baitu ea "pandemian zehar Osasun Sistema Nazionalaren Osasun Publikoko Batzordearen erabakiak jaso al diren batzordekideei igorritako aktetan, eta pandemia baino lehen Batzordearen erabakiak jasotzen al

ziren batzordekideei igorritako aktetan". Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Pandemia baino lehen eta pandemian zehar, Osasun Publikoko Batzordearen erabakiak aktetan jaso izan dira. Batzordeko kideek ez dituzte Batzordearen akta sinatuak. Hortaz, errepikatu behar da Batzordeko idazkariak dituela akta sinatuak eta, kasua bada, berarengana zuzendu behar duzuela.

Halaber, Batzordeko kideek konfidentzialtasun konpromisoa hartu dute beren bilkuretako eztabaida eta aztergaiei buruz, baita egindako bilkuren ondorioz eskuratzen dituzten informazioei buruz ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

## Galdera, COVID-19aren aurkako txertoaren hirugarren dosiari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin COVID-19aren aurkako txertoaren hirugarren dosiari buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00251). Bertan informazio hau eskatu du: “Zer jarrera defendatu du Nafarroako ordezkariak Osasun Sistema Nazionalaren Txertoen Ponentzian COVID-19aren aurkako txertoaren hirugarren dosiari dagokionez?

Noiz bildu da ponentzia hori gaia aztertzeke eta noizkoa da Ponentziak Osasun Sistema Nazionalaren Osasun Publikoko Batzordeari egindako gomendioa?

Pandemian zehar Txertoen Ponentziaren erabakiak jaso al dira ponentziako kideei igorritako aktetan?

Pandemia baino lehen, Txertoen Ponentziaren erabakiak jasotzen al ziren batzordekideei igorritako aktetan?”. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

– Zer jarrera defendatu du Nafarroako ordezkariak Osasun Sistema Nazionalaren Txertoen Ponentzian COVID-19aren aurkako txertoaren hirugarren dosiari dagokionez?

Ponentzian defendatu da hirugarren dosia ematea egoitzetan elkarrekin bizi direnei, 7. taldeari eta farmako immunoezabatzaileak hartzen dituzten pertsoneri, eta 70 urtetik gorakoei.

– Noiz bildu da ponentzia hori gaia aztertzeke eta noizkoa da Ponentziak Osasun Sistema Nazionalaren Osasun Publikoko Batzordeari egindako gomendioa?

Ponentzia abuztuko, iraileko eta urriko asteazkenetan bildu da gai horiek aztertzeke.

– Pandemian zehar Txertoen Ponentziaren erabakiak jaso al dira ponentziako kideei igorritako aktetan?

Pandemian zehar ez da erabakien aktarik igorri. Horren ordez, argitaratu diren bederatzi txertaketa-estrategietan jaso dira erabaki horiek.

– Pandemia baino lehen, Txertoen Ponentziaren erabakiak jasotzen al ziren batzordekideei igorritako aktetan?

Pandemia baino lehen erabakien laburpen-aktak banatzen ziren, berehala egiten ez bazen ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduña

## **Galdera, PCR bidez konfirmatu gabeko COVIDaren balizko kutsatzearen aurrekaria duten pertsonak txertatzeko pautari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, PCR bidez konfirmatu gabeko COVIDaren balizko kutsatzearen aurrekaria duten pertsonak txertatzeko pautari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00252). Bertan informazio hau eskatu du: "Zer jarrera hartu behar zen dosi bat edo biko txertatze-pautari dagokionez, PCR bidez konfirmatu gabeko COVIDaren balizko kutsatzearen aurrekaria duten pertsonendako bi dosiren txertoetan?"

Egoera horretan badira 65 urtetik beheitiko pertsonak, zeinei txertoaren bi dosi eman zaien, are alde zuzeneko kutsatzea egiaztatuta ere, era pribatuan egindako ELISA testaren bidez. Zein jardute-protokolo zegoen horrelakoan? Zein kontrol egiten du Osasun Departamentuak protokolo hori betetzen dela bermatzeko?". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

– Zer jarrera hartu behar zen dosi bat edo biko txertatze-pautari dagokionez, PCR bidez konfirmatu gabeko COVIDaren balizko kutsatzearen aurrekaria duten pertsonendako bi dosiren txertoetan?

COVID-19aren aurrekaria zuten pertsonen txertatze-pauta ezartzeko, pauta aldatzea aintzat hartu da soilik PCRak, Ag probak edota errendimendu handiko serologiak (ELISA, CLIA...) berretsitako gaixotasuna zuten pertsonentzat, betiere 65 urtetik beherakoak baziren.

– Egoera horretan badira 65 urtetik beheitiko pertsonak, zeinei txertoaren bi dosi eman zaien, are alde zuzeneko kutsatzea egiaztatuta ere, era pribatuan egindako ELISA testaren bidez. Zein jardute-protokolo zegoen horrelakoan?

Zentro pribatuan serologia egin eta beren osasun zentroko erreferentziako osasun langileen bitartez serologia hori erregistratu duten pertsonen analisia zentro publiko batean egin balitz bezalako jarraibidea jaso dute.

– Zein kontrol egiten du Osasun Departamentuak protokolo hori betetzen dela bermatzeko?

Kontrolak NAVAC aplikazio informatikoaren bidez egiten dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña



## **Galdera, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikuluko 1. eta 3. apartatuen babesean hasitako zehapen-prozedurei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikuluko 1. eta 3. apartatuen babesean hasitako zehapen-prozedurei buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00253); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Zenbat salaketa-espeditente edo akta aurkeztu zituen Foruzaingoak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikuluko 1. eta 3. apartatuen babesean, zehapen prozedura irekitzea ekarri zutenak?

Ateratako datuen arabera, 3.582.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikuluko apartatu horiek babestutako salaketa-aktetatik, Konstituzio Auzitegiak 148/2021 epaia eman zuenean zenbatetan ez zegoen oraindik irekita zehapen prozedura?

969tan.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikuluko apartatu horien babesean irekitako zehapen-prozeduretatik zenbat deklaratu ziren irmo administrazio bidean?

923 bilakatu ziren irmo.

Prozedura horietatik ukitutako pertsonen zenbatetan ordaindu zuten ezarritako zehapena?

Goiz ordaintzeagatik amaitutako espeditenteen informazioa baino ez du eskura departamentu honek, eta horrelakoak 453 izan dira.

Zein da martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikuluko 1. eta 3. apartatuen babesean irekitako zehapen prozeduretan ezarritako zehapenetan bildu den diru-kopurua?

Goiz ordaindutako isunen bidezko diru-sarreen zenbatespena baino ez du eskura departamentu honek, eta 158.550 euro inguru da.

Gaian eskumena duen departamentuak aurreikusi al du ebazpen edo egintza administratiboren bat, izaera orokorrarekin, Konstituzio Auzitegiak 148/2021 epaian ebatzitakoaren ondorioz?

Departamentuak idazkari tekniko nagusiaren txostena dauka, eta hor aztertzen da zer ondorio izan dituen zuk aipatu duzun Konstituzio Auzitegiaren epaiak.

Gaian eskumena duen departamentuak aurreikusi al du, Konstituzio Auzitegiak 148/2021 epaian ebatzitakoaren ondorioz, zehapen prozedurarik ez irekitzea salaketa-aktetan, baldin eta horietan ordura arte prozedura ireki gabe bazegoen?

Bai, aipatu txostenean azaltzen diren konklusioekin bat etorritik.

Gaian eskumena duen departamentuak aurreikusi al du amaiera ematea, jarduketak artxibatuz, zehapen prozedura administratiboei, haietan zehapen ebazpen irmorik egon ez eta, gainera, ireki direnean bakar-bakarrik martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikuluko 1. eta/edo 3. apartatuak hausteagatik?

Bai, aipatu txostenean azaltzen diren konklusioekin bat etorritik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 27an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## **Galdera, COVID-19a pasatu duten pertsonen txertoa jartzeko eguna aurreratzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID-19a pasatu duten pertsonen txertoa jartzeko eguna aurreratzeari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00254). Bertan informazio hau eskatu du: "COVID-19a jada pasatu duten pertsonen txertoa aurreratu zaie bi hilabetera txertaketa, sei hilabetera egin beharrean?"

Zer ebidentzia zientifikok bermatzen du immunitatea hobea eta iraunkorragoa izatea bi hilabetera txertatzean, sei hilabete igaro ondoren txertatuz gero baino?". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

- COVID-19a jada pasatu duten pertsonen txertoa aurreratu zaie bi hilabetera txertaketa, sei hilabetera egin beharrean?

Aurretik beste aldaera batzuekin kutsatu ziren pertsonak delta aldaeratik babestu behar zirelako.

- Zer ebidentzia zientifikok bermatzen du immunitatea hobea eta iraunkorragoa izatea bi hilabetera txertatzean, sei hilabete igaro ondoren txertatuz gero baino?"

COVID-19aren aurkako Txertaketarako Espainiako Estrategiaren 9. Eguneratzean aurkeztu da ebidentzia.

[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/salud-Publica/prevPromocion/vacunaciones/covid19/docs/COVID-19\\_Actualizacion9\\_EstrategiaVacunacion.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/salud-Publica/prevPromocion/vacunaciones/covid19/docs/COVID-19_Actualizacion9_EstrategiaVacunacion.pdf)

4.2.1. Aurretik SARS-CoV-2az kutsatu diren 65 urtetik beherako pertsonen txertaketa

Estrategiaren 8. Eguneratzeak planteatzen du aurretik SARS-CoV-2az kutsatu diren 65 urtetik beherako pertsonak txertatzea "lehentasunez sei hilabete igarotakoan sintomak hasi ziren edo infekzioa diagnostikatu zen egunetik". Ebidentziak erakusten du SARS-CoV-2az kutsatutako pertsona gehien-gehienek antigorputz neutralizatzaileak sortzen dituztela, T zelulen erantzuna eragiteaz gain, eta horiek infekziotik hamabi hilabete igaro arte irauten dutela, gutxienez ere 114. Gainera, zenbait ikerketaren arabera, txertoaren dosi batek antigorputz neutralizatzaileen mailak handitzen dizkie pertsona horiei, aldaera berrien kontrako babes handia emanez 115. SARS-CoV-2aren delta (B.1.617.2) aldaera da Espainian dabilen andui nagusia. Aldaera hori kutsakorragoa da, eta baliteke beste andui batzuen aurka sortutako antigorputzen eraginkortasuna murriztea, baita antigorputz horien ahalmen neutralizatzailea ere (ihes immunologikoa). Txertoen eskuragarritasuna ere kontuan izanda, Osasun Publikoko Bartzordeak, Txertoen Ponentziaren proposamenari jarraituz, erabaki zuen (2021eko abuztuaren 26an) jada SARS-CoV-2az kutsatutako 65 urte arteko pertsonen txertaketa aurreratzea, infekzioa diagnostikatu eta 4-8 astera dosi bakarra jarriz, horrela ahalik eta lasterren izan dezaten aldaera horren kontrako babes gehigarria. Lehen dosia jaso ondoren infekzioa izaten badute, pautak bigarren dosi batekin osatuko da erabat sendatuta daudenean, betiere infekziotik 4-8 aste igarotakoan. Ez da gomendatzen proba serologiko edo biologikorik egitea txertaketaren aurretik edo ondoren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

## **Galdera, onetsitako honako mozio honi buruzkoa: “Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako gazte elkarten gida gaurkotu dezan, elkartegintza errazteko gakoa baita”.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera onetsitako honako mozio honi buruzkoa zen: “Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako gazte elkarten gida gaurkotu dezan, elkartegintza errazteko gakoa baita”. Galdera 2021eko irailaren 24ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00284), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

Ekainaren 10ean egin genuen Osoko Bilkuran, Nafarroako sozialisten talde parlamentarioak aurkeztutako mozio bat onetsi zen, honako hau eskatzen zuena:

1- Nafarroako Gazteriaren Institutuaren, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren eta toki erakundearen arteko Mahaia sor dezan, gure foru erkidegoko gazte elkarten egoera aztertzeko.

2- Nafar gazteen artean gazteen elkartegintza erraztuko duen gida berri bat argitara dezan. Gida horrek genero-ikuspegia ziurtatu beharko du ekintza eta ildo estrategiko guztietan, emakume gazteek erabakiak hartzen diren organoetan parte hartzea bultzatuta.

3- Gazteei zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina bat egin dezan, gazteen elkartegintza aldezteko.

4- Beharrezkoak diren mekanismoak ezar ditzan, halako moduan non gazte-elkarte bat elkarten erregistroan inskribatzen den unean automatikoki inskribatuko baita Nafarroako Gazteriaren Institutuaren elkarten erregistroan ere.

5- Gazteen parte-hartzerako espazio autokudeatuak bultzatu eta babes ditzan.

Puntu horietako bakoitzari dagokionez, Nafarroako Gobernuak zer urrats egin du eta zeintzuk egingen ditu horiek denak betetzeko? Adierazi gogoan darabiltzazuen epeak ere.

1. Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legearen 7. artikulua toki entitateek gazteriaren arloan beren lurralde eremuetan dituzten eskumenei buruzkoa da, eta eginkizun hau aitortzen die, besteak beste: “Gazteen parte-hartzea sustatzea, beren lurralde eremuan gazteen elkarre mugimenduari lagunduz, Gazteriaren arloko Tokiko Kontseiluaren bitartez bidezkoa denean, eta parte hartzeko beste modu berri batzuk erabiliz”.

Bestalde, foru lege horren 35.2 artikulua ezarritzen duenez, “Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren funtsezko xedea da gazteen parte-hartzea sustatzea Nafarroako Foru Komunitateko garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalen”.

Gazteriari buruzko Foru Legearen 6. artikulua, halaber, gazteriaren arloan eskudun den departamentuaren eskumenez ari da; artikulua horren 3.c) apartatuak dioenez, departamentu horrek erregelamendu bidez sortu eta zehaztu ahalko ditu Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordearen eginkizunak, osaera eta funtzionamendu arauak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako toki entitateek gazteriaren arloan lankidetzaren administrazioa izateko organo gisa.

2021eko azken hiruhilekoan, jada adierazi denez, foru agindu baten bidez arautuko da Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordearen arau-garapena, zeinak, Nafarroako Gazteriaren Kontseilua tartean izanik, erantzun osoa eman ahalko baitio Nafarroako Sozialistak talde parlamentarioak aurkeztu eta iragan ekainaren 10eko osoko bilkuran onetsitako mozioari.

2. Nafarroako gazteen elkartegintzari buruzko gida berria 2022an argitaratuko da, eta xedezat izanen du Nafarroako gazteen elkartegintza sustatzea, genero-ikuspegia nabarmenduz eta emakume gazteek erabaki-organoen parte hartzeko bidea indartuz.

3. Gazteen elkartegintzaren gida hori eta sare sozialak, hain zuzen ere, NGIK gazteen sentsibilizatorako antolatuko duen kanpainaren ardatz nagusi izanen dira, 2022ko bigarren seihilekoan, gazteen elkartegintza sustatzea helburu.

4. Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiak du eskumena Elkarteen Erregistro Orokorraren gainean, eta Nafarroako Gazteriaren Institutuak, berriz, Gazte Erakundeen Erroldaren gainean; errolda horretan egotea beti izan da borondatezkoa. Beraz, gai hori unitate eskudunetan aztertzen ari da gaur egun.

5. Nafarroako Gobernuak ez dauka gazteen parte-hartzerako espazio autokudeaturik; horrelako espazioak udal titulartasunekoak dira gehien-gehienak. Beraz, Nafarroako Gobernuak haiek babestu eta bultzatzeko ekarpena egiten du zeharka, toki entitateentzako dirulaguntzen urteroko deialdietan. Jada onetsita daude 2022rako laguntzak, eta irailaren 30eko NAO-n argitaratu dira. Nafarroako Gazteriaren Institutuak ere, Nafarroako Gazteentzako Jardueren Eskolako programazioaren bidez, espazio horiek kudeatu eta dinamizatzeke prestakuntzan laguntzen du.

Kontseilari honek, aurreko informazio-eskaera batean adierazi bezala, funtsezkotzat jotzen du politika publikoak gazteen parte-hartzea sustatu eta babestera bideratuta egotea, bai Nafarroako Gazteriaren Institutuaren politikak, baita toki entitateenak ere. Eta, hortaz, gizartearen eta parte-hartzearen arloetan ekimena duten gazteak detektatzen ahalegintzea, gazteriaren eskariak eta kezkak bideratu ditzaten. Ildo horri jarraituz, jakin dakizunez, Nafarroako Gazteriaren Institutuak iragan irailaren 15ean Nafarroako gazteen parte-hartzeari buruzko diagnostikoa izeneko azterlana argitaratu zuen, oinarritzko tresna bat etorkizunean gazteen parte-hartzeari buruzko politikak taxutzeko.

Iruñean, 2021eko urriaren 26an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## **Galdera, Caparrosoko abeltegitzarraren eta biogas-plantaren CO2 emisioen aitortzei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Caparrosoko abeltegitzarraren eta biogas-plantaren CO2 emisioen aitortzei buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 24ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Caparrosoko abeltegitzarreko eta biogas-plantako CO2 emisioen aitortzei buruz (10-21-PES-00288). Hori dela eta, hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuaren ustez, CO2 emisioak jakinarazi behar al dituzte, 34/2007 Legeak ezartzen duen moduan, Caparrosoko abeltegitzarrak eta biogas-plantak, zeinen titularrak Valle

de Odieta SCL eta HTN SL baitira eta ingurumen baimen integratua baitute?

Airearen Kalitateari eta Atmosferaren Babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legeak ez du inolako emisiorik jakinarazteko betebeharririk ezartzen. Galdera parlamentarioa, CO2 emisioak jakinarazteko betebeharra aipatzen duenean, agian martxoaren 9ko 1/2005 Legearen edo apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren aplikazioaren ondoriozko betebeharez ari da (lehenengoak berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketaren araubidea ezartzen du, eta bigarrenak E-PRTR Erregelamenduko emisioei buruzko informazioa eta ingurumen baimen integratuei buruzkoa nola eman arautzen du).

Hori dela-eta, esan beharra dago ez HTN SLren jarduera ez Valle de Odieta SCLrena ez daudela 1/2005 Legearen aplikazio eremuan.

Zenbait industria instalaziori emisio edo isurien emaitzak jakinarazteko betebeharra ezartzen zaie apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuan, zeinak arautzen baitu nola eman E-PRTR Erregelamenduko emisioei buruzko informazioa eta ingurumen baimen integratuei buruzkoa, eta dekretu horren berrikuspenean, hau da, uztailaren 28ko

773/2017 Errege Dekretuan, zeinak industriako produktu eta isurketen arloko zenbait errege-dekretu aldatzen baititu.

Betebehar hori HTNren instalazioari bakarrik aplikatu ahal zaio, 773/2017 Errege Dekretuak indarra hartu zuenetik aplikatu ere, I. eranskineko 1. kapituluko 5.4 epigrafean sarturik dagoelako: "Hondakin arriskugabeen balorizazioa edo balorizazioaren eta ezabatzearen nahasketa, egunean 75 tonatik gorako ahalmena duena eta behean azaltzen diren jardueretako bat edo batzuk barnean hartzen dituena, salbu eta Hiriko hondakin uren tratamenduari aplikatu beharreko arauak ezartzen dituen abenduaren 28ko 11/1995 Errege Lege-dekretuan jasotakoak. Instalazioan hondakinak tratatzeko egiten den jarduera bakarra digestio anaerobikoa denean, jarduera horren ahalmen-atalasea egunean 100 tona izanen da". Arau-esparru horretan HTNren instalazioa da CO2 emisioak jakinarazi behar dituen, hirugarren galderaren erantzunean azaltzen diren baldintzekin.

2.- Urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuak gaurkotu egin zuen atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa, eta errege dekretuak aplikatzeko oinarriko xedapenak ezarri zituen, komunikazioari eta publizitateari buruzko betekizunak barne. Gobernuaren ustez, errege dekretu horren bidez araututako jardueretan sartzen al dira instalazio horietarako baimendu diren jarduerak (7.000 abelburutik goitiko abeltzaintza intentsiboa eta biometanizazio planta)?

Bi jarduerak daude sarturik Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa gaurkotu eta hura aplikatzeko oinarriko xedapenak ezartzen dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren aplikazio eremuan. Zehazki, HTNren kasuan B 09 10 09 02 epigrafean ("Hondakin arriskutsuen balorizazio ez-energetikoa, egunean gehienez 10 tonako ahalmenarekin, edo hondakin arriskugabeena, egunean 50 tonatik gorako ahalmenarekin"), eta Valle de Odieta kasuan B 10 04 02 01 epigrafean ("Bestelako behi azienda. Gehienez 600 abelbururentzako tokia duten instalazioak").

Nolanahi ere, arau hori eta gorago aipatutako 34/2007 Legea aplikatzearen ondorioz jakinarazi beharrekoak ez dira CO2 emisioari buruzko datuak.

3.- CO2 emisioen zer aitortpen egin dituzte enpresa horiek 2010etik 2020ra bitarte? Zer eduki zeukaten aitortpen horiek?

PRTR Erregistroari jakinarazi zaizkio HTNren 2019ko eta 2020ko isuri atmosferikoen datuak, kogenerazioko motorretan erabilitako biogasaren bidez kalkulatuak, titularrak jakinarazitakoaren arabera eta emari-neurgailuen irakurketetan oinarrituta; eta Nafarroako Gobernuak <https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/E2575175-56E9-48E5-A44F-7718B5DA5DED/440514/Factorresdeemision2018.pdf> estekan emandako emisio faktoreen datuak.

Iruñean, 2021eko urriaren 27an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## Galdera, Valle de Odieta SCL-k 2019an jasotako laguntzei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Valle de Odieta SCL-k 2019an jasotako laguntzei buruz Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 1eko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Valle de Odieta SCLk 2019an jasotako laguntzei buruz (PES-00294). Hori dela eta, hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1. Emandako Ingurumen Baimen Integratuarekin bat, Valle de Odieta SCLk zenbat abelgorri emerako baimena zeukan 2019an?

Valle de Odieta SCL enpresak 2019an indarrean zeukan Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren azaroaren 11ko 2275/2009 Ebazpenaren bidez emandako ingurumen baimen integratua, eta baimen horretan 3.450 esne-behi ageri ziren.

2013ko urtarrilaren 18an, titularrak bere instalazioa aldatzeko proiektua jakinarazi zuen. Esnetarako behien ustiatzea handitu nahi zuen, esne-behien kopurua 3.450etik 7.200era igoz, eta biometanizazio plantaren funtzionamendua aldatu, erregimen termofiloa ezarri. Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak funtsezko aldatzat jo zuen hori, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Legea garatzen duen Erregelamenduen 25. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz. Erregelamendu hori abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren urriaren 30eko 850E/2018 Ebazpenaren bidez, ukatu egin zen eskatutako ingurumen baimen integratua. Gora jotzeko errekurtsioan ebazpena berretsi zen, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren martxoaren 6ko 25E/2019 Foru Aginduaren bidez; eta eskatzaileak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri zuen.

2020ko abenduaren 21ean, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 333/2020 Epaian hau erabaki zuen:

“a) Aipatu ebazpena deuseztatzen dugu, ez delako zuzenbidearen araberkoa.

b) Aitortzen dugu demandatzaileak eskatutako ingurumen baimen integratua jasotzeko eskubidea duela 2015-12-22ko ebazpen-proposamenean azaltzen den moduan. Proposamen hori baimena ematearen aldekoa da, eta baimena emateko bete beharreko baldintzak ezartzen ditu”.

Epaia hori betez, Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpenaren bidez, ingurumen baimen integratua eman zitzaion Caparrosoko udal-mugartean dagoen esne-behien ustiatzearen eta hondakinen biometanizaziorako plantaren instalazioari, zeinaren titularrak Valle de Odieta SCL eta Hibridación Termosolar Navarra SL baitira, halako moldean instalazioak eta jarduerak bete behar baitituzte ingurumen baimen integratuaren proiektuan eta administrazio-espediterara bildutako gainerako agiri gehigarrietan ezartzen diren baldintzak, bai eta, edozein kasutan, ebazpen honen eranskinetan jasotako baldintzak eta neurriak ere. Baimen horrek 7.200era mugatzen du esne-behien kopurua.

2. Merkataritza-sozietate horri zergatik ordaindu zaizkio 5.077 behi edukitzeko laguntzak, baldin eta ehunka gutxiago edukitzeko baimena bazeukan?

Ekoizpenari lotutako laguntza, esne-behien ustiatzean, gainerako behi-aztiaren bezala, abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuak arautzen du, 2015etik aurrera nekazaritza eta abeltzaintzari zuzeneko ordainketak zein laguntzeko bestelako araubideak aplikatzeari buruzkoak.

Abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuaren 67.2 artikulua dioenez, laguntzak abere hautagarri bakoitzeko eta urte bakoitzeko emanen dira. Abere hautagarriak dira:

– Esnetarako behiak, aipatu errege dekretuaren XIII. eranskinean zerrendatzen diren arrazetak, edo arloan eskumena duen agintaritzak zehaztutako esnetarako beste behi arraza batzuetakoak.

– Eskaera egiten den urteko apirilaren 30ean 24 hilabete edo gehiago dituzten emeak, inskribaturik baldin badaude Animalien Banakako Identifikaziorako Erregistro Orokorrean (RIIA), ekainaren 13ko 728/2007 Errege Dekretuan ezartzen den bezala.

– Eskatzaileak urtarrilaren 1ean, otsailaren 1ean, martxoaren 1ean eta apirilaren 30ean bere ustiatzean dituen emeak. Egindako lau egiaztapenetan ustiatzean egon diren animaliak zenbatuko dira.

Egiaztapen horiek egiteko, NBEFk (Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsa) dirulaguntza jaso dezaketen abereak ateratzen ditu Animalien Trazabilitaterako Sistema Integral Nazionaletik (SITRAN). Aldi berean, gure Komunitatean, laguntzak kudeatzen dituen unitateak dirulaguntza jaso dezaketen abereak ateratzen ditu SITRAN autonomikotik. Bi informazioak erkatu egiten dira eta zenbat abere ordaindu behar diren zehazten da. Laguntzak ez du ordaindu beharreko abere kopuruaren mugarik, ez goitik ez behetik.

Datu-base horietan, 2019ko kanpainan Valle de Odieta SCLk guztira 5.004 behi frisiar edo mestizo zituen, 24 hilabete edo gehiago zituztenak 2019ko apirilaren 30ean, behar bezala identifikatuak eta urtarrilaren 1ean, otsailaren 1ean, martxoaren 1ean eta apirilaren 30ean ustiatzean egondakoak.

Horrenbestez, 5.004 abere ordaintzea proposatu zen (75 abere 127,998215 eurotan eta gainerrakoak 63,999107 eurotan), hau da, 320.423,32 euro ordaintzea, guztira.

3. Zer legetan oinarrituta ordaindu ziren baimendutakotik goitiko abelgorri horiek?

ekoizpenari lotutako laguntzaren ordainketa, esne-behien ustiatzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1307/2013 (EB) Erregelamenduak arautzen du (erregelamendu horrek nekazaritzako zuzeneko ordainketei aplikatu beharreko arauak ezartzen ditu Nekazaritza Politika Erkidearen esparruan), bai eta aplikatu beharreko estatu- eta foru-araudiak ere.

Zehazki, laguntza hau abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuak arautzen du (2015etik aurrera nekazaritza eta abeltzaintzari zuzeneko ordainketak zein laguntzeko bestelako araubideak aplikatzeari buruzkoa eta zuzeneko ordainketen eta landa garapenerako ordainketen kudeaketari eta kontrolari buruzkoa), eta Nafarroan laguntza honen deialdia egin zuen Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren apirilaren 11ko 82/2019 Foru Aginduak, zeinaren bidez honako hauen deialdia egiten baita 2019ko kanpainarako: Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak nekazaritzarako eta abeltzaintzarako finantzaturiko ordainketa zuzenei eta Landa Garapenerako Programaren eta Estatuaren halako laguntza batzuei dagokien eskaera bakarra, Erreserba Nazionalerako eskubide eskaerak,

Nekazaritzako Lurzatien Informazio Geografikoko Sistemarentzako aldaketa eskaeren aurkezpena eta urteko jakinarazpena, hura inskriba dadin.

4. Departamentu eskudunak zer kontrol daruma ekidite aldera baimendutako abelgorri kopuruaren eta laguntzak ordaintzeko erabiltzen denaren arteko deskontrol-egoera horiek ez daitezzen hain handiak izan?

Aplikatu behar diren Europar Batasuneko, Estatuako eta Foru Komunitateko arauetan ezarritako kontrolak egin dira laguntzak ordaintzeko. Zehazki, abelgorri kopuruari dagokionez, Abeltzaintzako Ustiatzearen Erregistro Orokorra ezartzen eta arautzen duen martxoaren 26ko 479/2004 Errege Dekretuan ezarritako kontrolak egin dira.

5. Departamentu eskudunak ba al du asmorik Valle de Odieta SCLk 2019an jasotako laguntzak aldatzeko espedienterik abiarazteko, halako moduan non soilik hartuko baita aintzat baimendutako abelgorri kopurua eta ez merkataritza-sozietate horrek, baimendutakoa bete gabe, zeukan kopurua, modu irregularrean jaso bide dena berreskuratzeko?

Goian azaldu den moduan, aplikatu beharreko araudiari jarraituz eman ziren laguntzak. Horrez gain, jada adierazi den bezala, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, 333/2020 Epaian, aitortu du demandatzaileak eskubidea duela eskatutako ingurumen baimen integratua jasotzeko, 2015-12-22ko ebazpen-proposamenean ezarritako moduan. Proposamen hori aldekoa da, eta baimena emateko baldintzak ezartzen ditu. Administrazio-zehapen batzuk ezarri zitzaizkion enpresari hasierako ingurumen baimen integratuaren babesik gabe egindako jarduketengatik, baina baimena aldatzeko eskaerak bai, barruan hartzen zituen jarduketak horiek. Zehapen horiek direla eta, Salak honako hau adierazi du geroago, 000292/2021 Epaian: “Auzi-jartzailea ez da erori egotzi zaizkion jokabideetan, zeren, ingurumen baimen integratua 2015eko abenduko proposamenean azaldutako baldintzekin eman zaiola pentsatu behar delarik (ikus 1145. folioak), instalazioak eta obrak baimen horren babesean baitaude. Abelgorri kopuruari dagokionez, ingurumen baimen integratuak 7.200 behi eta ernaldiko azken hilabeteetan dauden 600 bigantxa hartzeko tokia aurreikusten du; beraz, alde horretatik ere ez da erabili Administrazioak egotzitako jokabidea”.

Iruñean, 2021eko azaroaren 21ean

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

